



BALIO PROPOSAMENA

Arropa erostera joaten zarenean, askotan gustatzen zaizun zerbait aurkitzea zaila da. Gu hori kontuan hartuta, baikoitzak nahi duen diseinua egitea ahalbidetzen dugu. Egindako janziak arropa berrerabilitaz erabiliz egingo ditugu, enpresa ekologikoa baita.



Gainera, gaur egungo arropa produkzioak baliabide naturalak agortzea eragiten du, guk tendentzia hori birbideratu nahi dugu, material birziklatuen erabilerarekin. Produkzio jasangarriago bateri hasiera emanez.

Faktore ezberdinak eragiten dute bezeroak gure produktuak erostea:

➤ Berritasuna:

Beste online arropa dendetatik bereizten digun berritasun nabariena, bakoitzak diseinaturiko eta gustoko duen arropa erosi ahal izango duela bere etxetik mugitu barik. Gainera, arropa birziklatuaz izango dira janziak.



Era berean, Web orrian sekzio batzuk egongo dira diru laguntzak egiteko, eta egun berezietan laguntzak elkarteei emateko.

➤ Pertsonalizazioa:

Bezeroek aukera izaten dute haiek personalizatzeko arropa eta besteek egindako arropa ikusteko eta erosteko. Honela jendeak arropa janzi ezberdin eta modelo asko aurkituko ditu.

➤ Marka/Estatua:

"Low Cost" arropa denda bat da, jende gehiago bertan erosi ahal izateko. Era berean, Online web gunea denez mugikor eta ordenagailuetan bisitatu ahal da. Gainera, ekologikoa izango da, ingurumena zaintzeko eta jendea erakartzeko.





➤ **Prezioa:**



Arropa birziklatua erabiltzeak diseinuak egiteko ohialen kostua jaisten da eta prezioa jaistera eragiten du.

➤ **Arriskuaren murrizketa**

Hasieran proiektua online denda izango da, arriskuak murrizteko. Arrakasta badu, denda fisiko bat zabalduko dugu. Bidalketak Espainaren barruan hasiko gara egiten, gero arrakasta badu zabaltzen joango gara.

➤ **Eskuragarritasuna eta erabilerraztasuna**

Online denez, mugikorra edo ordenagailuaren bidez arropa erosi ahalko da, gero zure etxera bidaliko dugu. Era berean, normalean dendetan aurkitzen ez dituzun arropa janziak aurkituko ahalko dira.

Ordaintzeko metodoak errazak izango dira, orrdainketa mugikorratik egin ahalko da metodo ezberdinez; paypal, bizum, txartela eta transferentzia bankarioa bidez ordaindu ahal izango da.

